

Artea

Bedaxagarren aroztegiak

Haritz hosto erraldoi bat, lau metro luze, korten altzairuzkoa. Haritz hosto amerikanoa, Zuberoatik Ameriketara artzain joan zirenak omentzeko. Nestor Basterretxeak eskultura jarri beharreko tokian aurkitu zuen inspirazioa, Gotaine-Irabarneko Utürzabala parkean, paseoan, haritz amerikanoen hostoz estalitako lurra zapaltzean. Mixel Etxekopar zuen alboan, afera honen bultzatzailea, eta galdetu zion: “¿Hay algún herrero por aquí?” Eta Etxekoparek erantzun, “no un herrero, sino el herrero”. Errementaria –edo arotza, han esaten duten bezala– Jean-Mixel Bedaxagar.

ELIXABETE GARMENDIA

MIXEL ETXEKOPAR

BEDAXAGAR, URDIÑARBEOA, pastoraletan xirulari aspaldiko urteetan eta kantaria, ofizioz arotza baita. Errementari familia bateko bosgarren eta azken belaunaldikoa. Ia berrogei urte daramatza langintza honetan. Laborantzako tresnak konponduz hasi zen eta azkenaldian ardienezako estekak egin izan ditu batez ere. Eta bere karrera burutzeko hara! artisautzak artearekin topo egin. “Neretzako esperientzia harrigarri bat. Nere lan denbora luzean ez dut holako graziarik ardura ukan eta hau hartzen dut suerte handi bat bezala. Izigarri kontent nago, izigarri!”.

Apirilaren 4an ezarri zuten eskultura Irabarnen, aurten hogeigarren edizioa bete duen Xiru festibalaren baitan. Hilabete pare bat lehenago, otsailaren 11n, Basterretxea Urdiñarbera joan zen, Bedaxagarren aroztegi-
ra, lana nola zihoan ikustera. Aurtengo neguko egunik euritsuena zen. Baionatik aurrera, Zuberoara bidean, soroak eta belazeak nonahi ageri ziren ur putzutan, erreka eta ibaiek gainezka eginda. Arratsaldeko ordubietan zen hitzordua, Iparraldeko ordutegian. Bedaxagarrek, buzo urdinez jantzita, bertsoz egin zion ongietorria eskultoreari: “Nork erran hedatuko nintzela/horrela arte munduan./Basterretxea jaunak asmatu/obra arraro batean.”

Basterretxea ez zetorren esku-hutsik: Bedaxagar prestatzen ari den diskorako azala ekarri zion opari, paisaia bukoliko bat. *Auñamendi* izenarekin aterako du Bedaxagarrek hurrengo diskoa. Etxetik ikusten du gailurra eta faszinatua dauka. “Elurra agertzen



Nestor Basterretxea eta Jean-Mixel Bedaxagar, Irabarnen paratu duten eskulturaren ondoan.

denean, udazkenean, maskaradandantzen dut”.

Trumoi eta tximistek gogor astintzen zuten Bedaxagarren atelierra, euri erauntsiak atertu gabe. Denboralearen baitan, itsaso zakarrak amarrak askatu eta noraezean eraman zezakeen ontzia zirudien. Baina hantxe erdian, etzanda, han zegoen aingura, altzairuzko hostoa.

Basterretxeak, arkatza hartu eta zuzenketa batzuk egin zituen eskulturaren krokisean. “Haritz hosto sintetizatu bat da”. Gero Bedaxagarrekin batera miatu zuen aldenik alde, xehetasun guztiak erreparatu. Eta Bedaxagarrek kontatu zuen nola Mallabiko enpresa batean moztu zituzten altzairuzko piezak eta gero Angeluko beste lantegi batean forma kurbatuak eman. Berak, puzzle hura muntatu eta lotu behar soldadudaren bitartez. Larruzko amantala jantzita, txinparta urdinez zipriztindu zuen altzairua.

Etxekoparrek, ezin geldi egon gizona, soina probatu zion, dinbi-danba, txalaparta inprobisatuari. “Haurra ez da esnatua”. Bi edo hiru mende beharko omen ditu afinazioa lortzeko, “...eta gero bilan bat egingen dugu”, Bedaxagarrek eta biak aho –eta farre– batez. Eta gogoratu zituen Etxekoparrek, bihotz ximiko batez, Ameriketara artzain egondako bere attattaren ibiliak, aurrean zeukan eskulturaren ispilatuko balitzaizkio bezala.

Arratsaldea ez zegoen txantxetarako, eta laster hartu zuen Basterretxeak etxerako bidea, kamerari “agur!” seduktore bat botata. Film erromantiko bateko galaia zirudien zineko zuzendari ere izan den artista dotoreak. ■